

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Carmen Itxaso Lizaso

*Albiztur,
Gipuzkoa
(1926)*

Aurkibidea



Biografia



Albizturko Larreta baserrian jaioa. Bederatzi senidetan zaharrena zen Mari Carmen. Hautzaroko oroitzapenak bere anai-arrebekin ditu lotuak, haiek zaintzen amandako denbora dela eta. Gazterik joan zen neskame Donostiara, Nicolasa jatetxean sukaldaritza ikastera. Handik etxera itzuli zen, eta hogeita lau urte zituela ezkondu zen Urkizuko Urkizu Gainkoa baserrira. Han taberna zuen senarraren familiak, eta bertan lanean aritu da harrez gero.

Zintak

ALB-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-05-07
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Etxeko giroa eta lanak

- **Erref:** ALB-001/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:01:38. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Bere ama egunero Tolosara joaten zen esnea partitzera eta handik jateko zerbait ekartzen omen zuen. Hamar urte zituela eskola utzi eta umeez arduratzen hasi zen. Harrituta geratzen da gaur egun umeak nola zaintzen diren ikusita. Bere garaian umeak nola txukuntzen zituzten kontatzen du.

2. Tolosako familiei laguntza eskaini

- **Erref:** ALB-001/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:05:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

<p>11 urte zituela, gerra iritsi zen. Tolosan esnea erosten zieten familia batzuek laguntza eskatu zieten, baserrian babesteko; bi aldeetakoei eskaini zien laguntza. Baserrian gelak egokitu zituzten; eta gerran bi bandotan banatuta zeudenak, beraien etxean, ongi konpondu ziren. Bi familien izenak aipatzen ditu. Mirariak egiten zirela pentsatzen du.</p>

3. Baserrian gerratik babestu zituztenei ihes egiten lagundu

- **Erref:** ALB-001/004
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Eraso bat izan zen goiko mendian; soldaduak jaitsi ziren, eta etxetik ateratzea eragotzi zien. Amak ezkutuan atera zituen baserritik gordeta zeuzkaten lagunak: batzuk Zelatun menditik barrena Zarautzera; eta besteak, berriz, Altzo mendi aldera. Hori guztia bere amak nola egin ote zuen ez du ulertzen, ezeren truke laguntza eskaini zien.

4. Gerra, bizipen gogorra

- **Erref:** ALB-001/006
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:07:47. **Bukatu:** 00:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Gorriek eta erreketeeek inguruko mendietan liskarrak izan zituzten eta hildakoak egon ziren. Gogorra izan zen. Gorputzak bertan utzi zituztela uste du eta oraindik ere litekeena da batzuk bertan egotea. Gosea ezagutu zuten. Gauza tristeak ziren. Gaixotasunekin jende asko hil zen gerra ondoren, tisikoak. Gaur egungo egoera ere negargarria iruditzen zaio. Mundua erotuta dagoela dio. Zigorra etorriko dela uste du.

5. Baserriko errenta ordaintzea

- **Erref:** ALB-001/007
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:10:48. **Bukatu:** 00:13:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Beren etxe ondotik jende asko pasatzen zela gogoan du. Inguruko gehienak maizterrak ziren eta jabeak errenta kobratzera etortzen ziren. Beren baserriko nagusia Vizconde Zabala zen. Errenta Eguberritan pagatzen zen. Oilasko hoberenak kalera eramaten zituzten errentako dirua biltzeko. Gaizki ibiltzen ziren pagatzeko. Gaur, berriz, umeen gastuez kexatzen gara eta dena eskura jartzea nahi dugula iruditzen zaio.

6. Erdaraz ez jakiteak sortutako arazoak

- **Erref:** ALB-001/008
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Gizonezkoekin batera sorora joaten ziren eta umea manta zahar baten gainean uzten zuten. Etxean umeak zaindu zituen hamar urte zeuzkanetik. Gaur ez dute kontuan hartzen zaharrek nolako lana egin duten. Pena du eskola utzi izanagatik. Nahiago du erdaraz ikasi euskaraz baino. Urnietara festetara joaten ziren eta apurua pasatzen zuten treneko billetea erosi behar zutenean, erdaraz ez jakiteagatik. Euskara ongi dagoela uste du baina erdaraz jakinez gero, hobeto moldatzen garela dio. Berak eskolan irakurtzen eta idazten ikasi zuen. Telebistako pelikulak erdaraz ezin ditu ulertu.

7. Eskolan dena euskaraz ikasi zuten eta erdararen falta sentitu du askotan

- **Erref:** ALB-001/009
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Erdararen falta esnea saltzera joatean ere sumatzen zuen. Pixkanaka hitz batzuk ikasi zituen. Nahiz eta gaizki hitz egin, besteek ulertzen badute konformatzen da. Apaizek euskaraz erakusten zieten baina beraiek erdara ere bazekiten, baita latina ere. Eskolan, Xabiertxo liburua erabiltzen zuten. Batuketak eta kenketak ere euskaraz ikasi zituzten. Jende gehienak laguntzen duen arren, mespretxuak ere bizitu ditu hizkuntzarengatik. Ez jakitea gauza motza dela pentsatzen du.</p>

8. Taloa egiteko modua

- **Erref:** ALB-001/010
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:25:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak

Laburpena:

<p>Beste familia batzuk aipatzen ditu. Etxean ogia egiten ikasi zuen, etxeko mutilak betetzeko talo errea prestatzen zuen. Saria ateratzeko moduko taloak egiten ikasi omen zuen. Taloa nola egiten zuen azaltzen du pausoz pauso.</p>

9. Babarrunak egiteko modua

- **Erref:** ALB-001/011
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:25:28. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta sorra
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Etxean babarruna izaten zuten eta pausoz pauso azaltzen du nola prestatzen zituzten goizetik hasita. Babarrunak hamabietarako pronto egon behar izaten ziren. Gerra ondoren oliorik ez zen bilatzen eta estraperloan aldian behin litro bat lortzen zutela gogoratzen du. Sardina zaharrak izaten omen ziren eta olioaren ordezkariak batzuk jartzen zituzten eltzearen gainean, gustua emateko. Orduan ez zegoen minbizirik.</p>

10. Ogia egiteko eta jateko modua

- **Erref:** ALB-001/012
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:32:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ogia egiteko legamia behar izaten zuten. Ogia bi egunetik behin egiten zuen. Hamasei urte zituenean ekonomika jarri zuten etxean. Ekonomikako labea sartzen zuen ogiaren masa eta legamiari esker harrotzen zen. Ogia koskorretik hasi behar zela pentsatzen zuten eta gurutze egin ondoren hasi behar zela jaten. Ogia lurrera eroriz gero, jaso eta musu eman behar izaten zitzaion.

11. Errezoak eta bedeinkapenak

- **Erref:** ALB-001/013
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:32:29. **Bukatu:** 00:37:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Bere garaian, jaten hasi aurretik erreztatu egiten zen. Ur bedeinkatua paretan izaten zuten eta goizean eta gauean harekin aitaren egin behar izaten zen. Mahaia aita edo amak bedeinkatzen zuen. Gauero arrosarioa erreztatzen zuten. Etxekoek fede handia zuten. Trumoi hasten zenean, erramua sutara sartzen zuten. Gaur egun, ez dago horrelako federik. Santa Kruz egunean, terreno bakoitzean kredo bat erreztatu eta gurutzea jartzen zutela dio, tximistak okerrik ez egiteko. Albizturren eta Ikaztegiaren, tximistaren ondorioz hildakoak egon zireneko kontakizunak gogoratzen ditu.

12. Fedea, Eliza, konfesioak eta bekatuak

- **Erref:** ALB-001/015
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:39:01. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Lehen dena sinesten zen. Lehen apaizak jauntxoak zirela pentsatzen du. Kongregaziora joaten ziren eta apaiz batek ilara izaten zuen konfesatzeko, "manga ancha" zeukalako. Albizturko elizara joaten ziren. Urkizun eskola eta komunio txikia egin zituzten. Mutilek ukitu al zituzten galdetzen zien konfesatzerakoan eta ondoren penitentzia ezartzen zieten. Baltsean ez ziren ibiltzen, bazterrean gelditzen ziren kongregaziotik botatzeko beldurrez, fama txarrik ez izateko. Tolosara joaten zirenean, ezin izaten zuten dantzarik egin. Apaizek dena ongi ez zutela egiten pentsatzen du.

13. Umeen jaiotza

- **Erref:** ALB-001/017
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:46:36. **Bukatu:** 00:48:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Egunez esnea saltzen ibili ondoren, gauean amak umea eduki zuela gogoratzen du. Jaiotzaren azalpena, aireplanotik umea gauean bota zutela edo horrelakoren bat izaten omen zen. Oso inuzenteak zirela pentsatzen du. Erditzean laguntzeko, amona etxera etortzen zen egun batzuk lehenago.

14. Jaioberrien bataioa

- **Erref:** ALB-001/018
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:48:38. **Bukatu:** 00:51:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Umea gauean jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zutela dio, hiltzen bazen linbora joateko beldurrez. Bataioa ospatzeko oiloa hiltzen zuten.</p>

15. Emakumeak ezin zituzten galtzak jantzi

- **Erref:** ALB-001/021
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:59:24. **Bukatu:** 01:02:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

<p>Bere garaitik gaur egunera eguraldia aldatu dela dio. Bere garaian elur gehiago egiten zuela uste du. Gonekin ibiltzen ziren neguan ere, galtzak jantzea bekatutzat zutelako. Albizturko gizon batek Goiasko andrea hartu zuen, hura galtzak jantzita Hernio mendira joaten ikusi zutela.</p>

16. Haurdunaldiak eragozteko sistema

- **Erref:** ALB-001/022
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:02:11. **Bukatu:** 01:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Albizturtik Urkizura bizitzera joan zenean bizimodua aldatu zitzaion eta aldaketa ona izan zela uste du. Lau seme-alaba izan zituen; ume gehiago ez izateko pastillarik ez zegoenez, senarrak logela batera eta emazteak bestera joan behar izaten zuten. Bizilagunak zortzi edo bederatzi ume izan zituen; berak, berriz, ez.</p>

17. Donostiako Nicolasa jatetxean sukaldari

- **Erref:** ALB-001/025
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 01:10:37. **Bukatu:** 01:14:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Nicolasatik bidaltzen zizkien janariak Francoren Aieteko etxera. Francok Nicolasan koktelak antolatzen zituen. Neska askok egiten zuten lan Nicolasa jatetxean. Jatetxe hartan obeditzen ikasi zuela esaten du. Donostiako lanetik etxera bueltatu zenean, jende asko zegoen baserrian eta denentzat lan egin behar izan zuela esaten du. Udatiarrak ere hara etortzen ziren eta haientzat lanean aritzen zen: gosariak, bazkariak, afariak, oheak prestatzen, garbitzen...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com